

GUZTION ARRASATE

UN FUTURO EN COMÚN

2023-2027

GOBERNU PLANA

PLAN DE GOBIERNO



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



GUZTION ARRASATE BERMATUKO DUEN PROIEKTUA

Dokumentu hau Arrasateko Udalak 2023-2027 legegintzaldian egin asmo dituen proiektu eta ekimenen plangintza txostena da. Aurten, lehen aldiz, legegintzaldiko bideorria publiko egin eta jendaurrean aurkeztea erabaki du Udal Gobernuak. Gardentasun ariketa honetan, herritarrek jarraipena egin ahal izango diote Udalaren lanei eta plangintzaren betetze mailari.

Guztion Arrasate lortzea da agintaldi plan honen helburua. Udala jakitun baita Arrasate anitza dela, jatorri eta nortasun ezberdinen arteko batura, eta herritar guztiek osatutako komunitate saretua dela bizikidetzaren berme eta altxorra. Horregatik, Udalak, elkarbizitza hori lortzeko helburuarekin lan egin, eta, modu berean, proiektu honetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu arrasatear guztiak.

Izan ere, dokumentu hau, gida bat baino, herriarekin sinatu nahi den hitzarmena da; adostasunetik eta elkarlanetik gauzatzeko proiektua izan dadin. Udala guztion eskura egon dadin, herritarrengandik gertu, herritarrek entzunez eta parte hartzeko aukerak eskainiz. Aurrera egiteko eta herri hobea izateko, ezinbestekoa izango delako herritarren, eragile sozial eta ekonomikoen eta Udalaren arteko lankidetzaren indartzea.

Lau lan ildo nagusi Arrasate hobetzeko

Lau ildo estrategiko ezarri ditu Arrasateko Udalak herriaren garapena eta bilakaera gradual eta planifikatua gauzatzeko.

Horretarako, dokumentu honek, Udalak agintaldi honetan, 2027 bitartean, egin asmo dituen proiektuen zerrendatze, azalpen eta ejekuzio aurreikuspena jasotzen du. Proposamen hauek, bloke ezberdinetan jasota badaude ere, lau blokeen arteko elkarrekintza etengabea da, etengabeak dira, proposamen gehienek eskatzen baitute sail ezberdinen arteko elkarlan ildo ezberdinak abiaraztea.

Dokumentu honek jasotzen duen ekintzen lehen bloke nagusia “Gobernantza hurbila eta eraginkorra” lortzeko lan ildo da, gobernantza eredu parte hartzaileago bat lortzeko espazioak eta bitartekoak sortzeko proposamena egiten duena. Udalak dituen baliabideen eta antolaketa ereduaren inguruko hausnarketa eta lanketa ere proposatzen ditu, hauek eguneratu eta eraginkortasuna bilatzeko.


Hirigintza ereduak egunerokoan eta mugikortasunean duen eragina berrikusi eta Arrasate eroso eta irisgarri bat egiteko proposamenak ere jaso ditu Udalak “Bizitzeko Herria” deitu duen lan ildoaren barruan. Etorbizuneko Arrasateren hirigintza definitu eta errealitate bilakatzeko abiapuntua izango da.

“Oinarri komunitarioa duen herria” lortzeko helburuak ere proposamen andana jasotzen ditu. Herritarren arteko aukera berdintasuna eta askatasuna bilatzen duen lan lerro honek, komunitate saretu baten helburupean definitzen ditu bere proiektuak.

Azkenik, “Herri aktibo eta ekintzailearen” blokeak, herri bizi bati erantzuten dioten ekimenak jasotzen ditu, eragile ezberdinen arteko elkarlan eta sinergiak aktibatuzko proiektuak.

Arrasateko Udalaren 2023-2027 agintaldi planaren memoria txosten hau, elkarlanerako bide-orri bat izatea nahi du Arrasateko Udalak, eta, ondorioz, baita bitarteko malgu bat, etengabe berrikusi eta ebaluatu beharko dena. Berrikuspen horretan, aurreikusitako betetze mailari jarraipena egiteko tresna izango da lan ildo bakoitzarekin aurkitzen den kronograma, lanen exekuziorako aurreikuspena. Gauzak ondo bidean, Arrasate, lau urte ondoren, agertoki berri baten aurkituko da. Guztion bizileku izango den Arrasate.

Arrasaten, 2024ko otsailean



4 **GOBERNANTZA HURBILA
ETA ERAGINKORRA**


9 **BIZITZEKO
HERRIA**

21 **OINARRI KOMUNITARIOA
DUEN HERRIA**

30 **HERRI AKTIBO ETA
EKINTZAILEA**



**GOBERNANTZA HURBILA
ETA ERAGINKORRA**



Udal ireki eta parte hartzailea izateko ekintzak gauzatuko dira; oztopo sentitzetik, bidelagun eta gertuko izatera igarotzeko. Herritar guztien etxea da Udala, guztion ongizatea lehenetsiko duena.

GOBERNANTZA EREDUA

AUZOAK

UDALA-AUZOAK HARREMANA

Udal batzordea eta auzo alkatetzak harremanetan egoteko egitura/prozedura sortuko da.

AUZOETAKO BEHARREN MAPA

Auzotarrekin batera eta auzo-alkatetzekin elkarlanean, auzo bakoitzaren diagnosia egingo du Udalak, beharren mapa osatu eta hurrengo urteetako ekintza plana osatu ahal izateko.

AUZOETAKO TOPAGUNEAK SORTU

Auzoetako topaguneak sortuko dira, auzo-alkatetza, auzo elkarte, jai batzorde eta eragile ezberdinekin osatutako elkarlan mahaiak martxan jarritz.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

HERRITARREN PARTE HARTZE MODUAK LANDU

Herritar askok udal jarduna urruti ikusten dute; parte hartze dinamikak momentu puntualetara mugatu ohi dira, proiektu konkretuetara, aurrekontuetako kopuru zehatzetara.

Udalak herritarren parte hartze moduak landu gura ditu, eragiten digun horretan guztiok zeresana dugula ulertuta. Eragile gisa ala norbanako gisa, ekarpenak eta lanketa bateratuak bideratu nahi dira, denborak zabaldu.

Hori gogoan, eremu zehatzetatik hasi (hirigintza plangintzen partehartzea diseinuan bertan txertatuz, esaterako) eta eremu zabalagoetara bideratuz parte hartze dinamika berriak arakatuko dira (adibidez, Nagusien kontseilua eta parte hartzea).

UDAL IREKIA

Udaleko atek zabaldu eta herritarrak hartzeko ordu tarte publikoak sortuko ditu Udalak.

UDALA HERRITARREN ZERBITZURA

UDAL BALIABIDEAK

ENPLEGU PUBLIKOA

- **Udal baliabide beharrak aztertzea:**

Udalak dituen langileen zenbatekoa eta nolakotasuna aztertuko da, egoera, garai eta antolakuntza modu berrietara egokitu ahal izateko.

- **Lanpostuen balorazio berria:**

Aurreko puntuan adierazitako azterketak lan egiteko modu eta funtzio berriak ekarriko dizkie udal langileei. Horri lotuta, lanpostuak baloratuko dira.

- **Udal langileak egonkortzea:**

Arrasateko Udaleko langileen %38 behin behineko egoeran daude. Legegintzaldiko helburua interinitate tasa %8tik behera jaitea da, legeak baimentzen dituen mugetara egokituta.. Horretarako, jadanik onartuta dauden baina egikaritu ez diren Lan Eskaintza Publikoak egokitu eta berriak martxan jarri eta exekutatu dira.

- **Munizipalizazioa:** Udal zerbitzuen munizipalizazio aukerak aztertuko dira.

Gaur egun lizitatuta dauden eta kanpo enpresa bidez ematen diren zerbitzuen azterketa egingo du Udalak, eta zerbitzu horiek modu zuzenean, azpikontratatu gabe, egiteko aukerak aztertuko ditu.

Azpikontratatuak zerbitzu guztiek ez dute konplexutasun maila bera, hortaz, egingo den azterketak aurreikusi beharko du munizipalizazio edo udaleratze horren exekutatzeko mailakatua.

UDAL ANTOLAKETA

ARRETA ZUZENA

- **BAZ berritu:**

Herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko, Administrazioan, Udalean, jarraitu beharreko prozedurak arautzen dituen 39/2015 Legeak jasotzen dituen hiru helburu nagusi ezartzen dira. Lege horrek Administrazio Publiko eraginkor, garden eta bizkorak eskatzen ditu, eta aldaketa hauek baliatu nahi dira horretarako.

Bestalde, arreta-zerbitzuaren ereduak aldaketak izango ditu: arreta-eredutik laguntza-eredu batera igarotzeko beharra antzeman da; arretak pertsonalizatua behar du.

Aldaketa honek BAZ eraldatuko du, zerbitzua emateko modua eta bulegoak duen antolaketa fisikoa aldatuz.

BARNE ANTOLAKETA

- **Udal antolaketaren azterketa:**

Udalek herritarrei zerbitzua emateko duten modua aldaketa aroan dago. Proiektu ezberdinak abian, pasa den mendeko egitura eta egiteko moduak mantentzen ditu egungo udal antolaketak.

Azterketa honen bidez, aldatzen doazen egiteko modu horietara egokitu nahi da udal funtzionamendua eta antolaketa. Eguneroko kudeaketan sailen arteko koordinazioa hobetzeko eremuak sortu nahi dira eta sail ezberdinen arteko lanketa eskatzen duten proiektuak garatzeko baliabideei buruzko azterketa egingo da.

Bestalde, udal sailen arteko komunikazioa hobetzeko informazioa partekatzeko moduak ere berraztertu eta egokituko dira.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

- **Barne prozedurak egokitu:**

Udal prozedurak aztertu, birdefinitu eta sinplifikatzeko beharra antzeman da. Lan honek prozedura horiek finkatzeko eta errazteko bidea egingo du, udal langileei eguneroko lanera tresnak emateko, eta herritarrei eman beharreko informazioa egoki eta osotasunean jasoko duen Izapideen Gidaliburu bat osatuz.

- **Udal App-a sortu:**


Udal zerbitzuak bateratuko dituen herritar txartela eta mugikorrerako aplikazioa sortuko du Udalak, ematen dituen zerbitzuetarako sarbidea edo aktibatze modua emango duena (kirol azpiegituretarako sarrera, liburutegiko txartela, ikasteko espazioen erabilera, etab). Txartela/app-a era mankomunatuan ematen diren zerbitzuekin bateragarri izateko azterketa eta elkarlana ere bideratuko da. (hondakinen edukiontzia irekitzeko aukera, adibidez).



Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Demokrazia-gobernantza eredua	Auzoak		Udala-auzoak harremana	Udal batzordea eta auzo alkatetzak harremantzeko egitura/prozedura sortu	X				Auzoak
			Auzoen behar mapa	Auzotarrekin batera, auzo bakoitzaren diagnosis egin	X				Auzoak
			Auzotetako topaguneak sortu	Auzoetako topaguneak, elkarlan mahaiak sortu		X			Auzoak
	Herritarren parte-hartzea		Herritarren parte-hartze moduak landu	Udal jardunean parte hartzeko dinamika berriak arakatu	X	X	X	X	
	Udal irekia		Udal irekia	Udaleko ateak zabaldu eta herritarrak hartzeko ordu tarte publikoak sortu	X	X	X	X	Alkatetza
Udala herritarren zerbitzura	Udal baliabideak	Enplegu publikoa	Udalaren baliabide beharrak aztertu	Udalaren baliabideak berraztertu, egoera/garai berrietara egokitu ahal izateko	X				Pertsonalgoa
			Lanpostuen balorazio berria	Lanpostuen balorazio berria egin, funtzioen eguneraketa bideratuz		X	X		Pertsonalgoa
			Langileak egonkortu (1)	Onartutako LEPak egokitu eta martxan jarri	X				Pertsonalgoa
			Langileak egonkortu (2)	LEP berriak martxan jarri	X	X	X	X	Pertsonalgoa
		Munizipalizazioa	Udal zerbitzuen munizipalizazio aukerak aztertu	Lizitatutako zerbitzuen azterketa egin eta udal zerbitzu zuzena emateko aukerak aztertu	X	X			Idazk-kontua
	Udal antolaketa	Arreta zuzena	BAZ berritu	Biztanleen arreta zerbitzu integrala bihurtu	X	X			BAZ-perts-idazk
		Barne antolaketa	Udal antolaketa azterketa	Udal sailen antolaketa aztertu eta koordinazio eremuak sortu	X	X			Idazk-perts
		Administrazio elektronikoa	Barne prozedurak egokitu	Administrazio prozedurak eguneratu eta sinplifikatu	X	X	X	X	Idazk-perts
			Udal App-a sortu	Hainbat zerbitzu aplikazio bidez baliatzeko aukera (txarteletik aplikaziora)		X			Perts-informatika



BIZITZEKO HERRIA



Herria berrasmatu eta berritzeko beharra dago, etorkizuneko erronkei erantzungo dien herri eredua eraikitzeko: herri jasangarri, irisgarri eta bizitzeko eroso.

Horretarako, abiapuntu izango diren honako proiektu hauek gauzatuko ditu Udalak:

POLITIKA KLIMATIKOAK

NATURAGUNEAK

ETXEZARRETA

Etxezarreta inguruko lanekin aurrera egingo du Udalak. Hasteko, eremua eta bertan kokatutako eraikinen segurtasuna bermatzeko lanak egikaritu dira. Ondoren, lorategi botanikoa balioan (eta erabileran) jartzeko idatzitako proiektuan jasotako lanak eramango dira aurrera, inguru naturala eta biodibertsitatea berreskuratuz.

NATURAGUNEEN SAREA

Herriko naturagune nagusiak (Monterron, Santa Barbara eta Etxezarreta) ez dute proiektu komunik, hauei bizkar bizi gara. Hiriko eta hiri inguruko parke eta naturaguneen sarea sortu gura du Udalak. Horretarako, herritarrekin batera, elkar-sorkuntza ariketa bideratuz ekintza plana diseinatuko du Udalak, beharrak aztertu eta parkeak lotu eta egokituz, bestelako natur espazioekin lotura-moduak aintzat hartuz.

LEZETXIKI

Lezetxikiko Aztarnategi Arkeologikoa eta haren ingurua babes bereziko kultura-ondasun izendatu zituen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politika sailak 2022an, Gune Arkeologikoaren kategoriarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailak, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, 1. guneko aztarnategien egungo egoera aztertu beharko zuela adierazi zuen izendapen dekretu hark, ikerketaren, kontserbazioaren eta zabalkundearen ikuspegitik, Gune Arkeologikoa Ikertzeko eta Kontserbatzeko Plan Zuzentzailea (babestu beharreko ingurunea barne) lantzeko.

Udalak plan zuzentzailea garatuko du eta eremuaren planimetria eguneratuko du, aurreikuspen hauen baitan.

BASOGINTZA

Baso espazio publikoa handitzeko helburuarekin, udalak baso sailen erosketa bideratuko du, modu honetan bertako bioaniztasuna berreskuratze bidea egingo du.

Aldi berean, basogintza eredu jasangarrietara bideratzeko kudeaketa eredu berrien esperientziak aztertu gura ditu Udalak, horretarako ere baso espazio hauek baliatuko ditu.

Honi lotuta, basoen zaintza eta kudeaketarako udal basogile lanpostuak egonkortzeko bidea ere egin nahi du Udalak, aldi baterako kontratazioetatik haratago joanaz.

URAREN KUDEAKETA

Zerbitzu publikoetan, uraren kudeaketa egokia eta eraginkorra egitea da helburua. Horretarako, kontagailuak berritzeko lanekin jarraituko du Udalak, digitalizazio bidean, datu bilketa eta kudeaketa efizienteagorantz bidea egiteko.

Bestetik, udal ur hornikuntza sistema aztertu nahi da, uraren hiri-zikloaren azterketa orokor baten baitan. Udal azpiegituren egoeraren diagnostia egin eta aurrera begira egin beharreko lanak zehaztea da helburua. Aldaketa klimatikoak uraren ezinbesteko baliabide izaera sendotzen duen honetan, eszenatoki eta erronka ezberdinen aurrean ekiteko diagnostia eta ekintza plana izango da egíngoa duguna.

TRANSIZIO ENERGETIKOA

Arrasate energia eredu jasangarrirako bidean

Arrasateko Udalak bere energia estrategia definitu eta gaur egun finkatuta dauden helburu energetikoak betetzeko bidea egin behar du: "Fit 55" Europa mailan (EBko emisioak %55 gutxitu beharra), Estatuan eta baita EAE mailan ere; besteak beste, 4/2019 Legeak, Jasangarritasun Energetikoarenak, ezartzen dituenak.

Azken honek euren energia kontsumoa murriztea eskatzen die administrazio publikoei, zehazki: 2030 urterako %35 eta 2050 urterako %60, finkatutako oinarri urte batekiko.

Helburu horiek lortzeko ez da nahikoa izango energetikoki eraginkorra izatea, baizik eta beharrezkoa izango da energia berriztagarriak ezartzea ere. Bide orria garatzeko, honako ildo estrategikoei jarraiki burutuko dira ekintzak:

- **Udal energia kudeaketa** burutzea.
- **Udal argiteria publikoa** eraginkorra izatea.
- **Udal eraikinetan energia** kontsumoa murriztea.
- **Udal ibilgailuen flota** jasangarria izatea.
- **Herritar eta eragileekin lankidetzak bultzatzea** (udalerritik haratago, Europa maila arte).

Energia eredu jasangarri baterako bide orria idatzia du Udalak. Hortaz, bertan jasotakoak egokitu eta burutzea dagokio, 2030 eta 2050erako helburuak lortze bidean.

Bide honetan, Debagoiena 2030 sarea bidaide izan nahi du Udalak, eta elkarrekin sustatuko dituzte lan dinamikak, eta eragileen arteko lankidetzak bultzatuko dute.

MUGIKORTASUNA

Mugikortasun jasangarrirako Udal Plana eguneratuko da, ikuspegi sozial, ekonomiko, ingurumen eta osasun ikuspegiak kontuan izanda, eta genero ikuspegia oinarrian txertatuta.

Egingo den dokumentuak herriko mugikortasun estrategiak definitzeko balioko du, HAPO berriaren oinarri izango delarik. Plana herritarren parte hartzeko prozesuarekin batera egingo da; arreta berezia jarriko da prozesu honetan emakumeen parte hartzea sustatu eta ahalbidetzeko.

Helburuen artean, besteak beste, honakoak:

- **Klima aldaketarekin** lotura egitea.
- **Berdintasun eta inklusioaren aldeko** eredia garatzea.
- **Irisgarritasuna hobetu** eta garraio publiko kolektibo eta motorrik gabeko sistema bidezko mugikortasuna sustatzeko baldintzak sortzea.
- **Aparkalekuen beharrak aztertzea**, eta horiek kudeatzeko proposamenak jasotzea.
- **Bizikleta bidezko mugikortasun sarea** hobetzea, benetako sare jarraia sortuz.
- **Oinezkoentzako eremuak** ezartzeko azterketa egitea.
- **Mugikortasun pertsonalerako** ibilgailuen analisia egitea.
- **Herri barruko zein herri arteko garraio publikoaren zerbitzuen analisia egitea eta horien hobekuntzarako proposamenak egitea.** Herribusaren kasuan, lineen azterketa eta trazadura berri edo alternatiboen proposamenak jasoko dira.
- **Hirigintzaren ikuspegitik, “taktikoak” izango diren mugikortasun jarduketak proposatzea** (aldi baterako gauzatu daitezkeenak zein etorkizuneko HAPOn jaso beharreko egiturazko neurriak izan daitezkeenak).

PROIEKTUAK

PLANGINTZA

- **Mugikortasun plana** idaztea.

GARRAIO PUBLIKOA

- **Autobus geltokiaren kokapena definituko da**, Mugikortasun Jasangarrirako Planak jasoko dituen ildoen baitan. Behin kokapena zehaztuta, dagokion Hirigintza plangintza aldaketa edota egokitzapenak egin, eraikuntza proiektua idatzi eta eraikuntza lanak abiatuko dira.
- **Autobus zerbitzua berraztertu eta egokituko da**, Mugikortasun Jasangarrirako Planak jasoko duen azterketaren baitan.

BIDEGORRI SAREA

- **Arrasateko bidegorri sarea osatzen joan** da azken urteetan; alabaina, sarea ez da jarraia, loturak osatu gabe baitaude. Idatziko den mugikortasun planetik eratorriko den plangintzaren baitan, sare jarraia egikaritzea da helburua.

PRAKTIKA BERRIAK

- **Hirigintza taktikoa.** Aldi baterako izan daitezkeen formula azkarren bidez, espazioen eraldaketa bultzatzen du hirigintza taktikoa. Behin behineko jarduketak dira, itzulgarriak, eskuragarriak eta arinak; lurreko margo, hiri altzari edota mugitu daitezkeen lorategiak erabiltzen dira formula honetan. Jarduketa hauen bitartez, berrikuntza bultzatu eta egindako ekintza herritarren beharretara egokitzen den egiaztatzeko aukera dago, ondoren behin betiko lana bideratzeko, bere kasuan.
 - *Hirigintza taktikoari lotuta, Otorala egitasmoa bideratuko da, kaleak izan ditzaken eraldaketa aukerak mahai gainean jartzeko.*

HIRIGINTZA PLANGINTZA

HAPO (HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA)

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra dokumentu estrategikoa da: hiriaren eta landa guneen egoera eta erabilera modua aztertzen ditu, eta erabilerak, eraikigarritasunak, jarduerak, eskubide eta betebeharrak finkatzen eta arautzen ditu.

Arrasateko HAPO 2016an onartu zen, eta orain, berrikustea dagokigu. Berrikuspen osoa izango da, eta etorkizuneko Arrasate nolakoa nahi dugun denon artean idazteko aukera emango digu lanketa honek. Horregatik, denontzako herria antolatu nahi dugulako, herritarren parte hartze zabala oinarri izango duen lanketa abiatuko dugu, oinez eta bizikletan mugituko den herria, emakumeen errealitate, begirada eta espazioaren erabilera kontuan izanik anitza eta irisgarria izango dena, trantsizio ekologikoa gogoan, eraikitako hiriaren birgaitze, berroneratzea eta berritzea bultzatuko duena, natura herrira ekarri nahi duena, edo eta, hiriko bero-uharteak saihestuko dituen.

HAPOaren lanketa arnas luzeko proiektua da, eta lanketa luzea du. Aurretiazko lanak eta azterketak 2024an martxan jarriko dira: parte hartze prozesu osoa diseinatuko dugu (aurretiazko plan guztiena, eta baita plan orokorraren tramitazioan jarraitu beharrekoa ere); mugikortasun planaren idazketa baliatuko dugu HAPOrako oinarri gisa; irisgarritasun unibertsala bermatze bidean garatu beharreko plana idatziko dugu; zarata mapa osatu eta inpaktu akustikoa aztertu; Arrasateko azpiegitura berdeen azterketa egingo dugu; etxebizitzak zenbatetsi (hutsak eta beteak), eta genero ikuspegiaren azterketa osatu.

2025ean, aipatutako azterketak bukatu eta Plan Orokorraren eragin sozioekonomikoaren azterketa egingo dugu. Behin datu, plan, eta azterlan guztiak bilduta, HAPOaren aurrerakin dokumentua idatzi eta onartzeko moduan egongo gara. 2026an, aldiz, eragin linguistikoaren ebaluazioa eta euskararen azterketa osatuko da.

Helburua da guztion artean osatutako HAPO berriaren hasierako onarpena 2026 amaierarako egitea. Zentzu honetan, garrantzitsua izango da prozesuari berari garrantzia ematea, eta hirigintzaren inguruko hausnarketa kolektibo eta partekatuak eraikitze ahalegina egitea. Gaur-gaurkoz herrian dugun hirigintza ereduaren inguruko hausnarketa bultzatuz, hirigintzak gure bizitzetan duen eragina eta nola baldintzatzen duen.

HIRIGINTZA ETA HERRI LANEN ARAUDIA

ORDENANTZAK

TERRAZEN ORDENANTZA SORTU

Arrasateko Udalak herriko kaleetan eta plazetan ostalaritzako terrazak jarri ahal izateko araudia osatu nahi du, modu horretara, etorkizunean terrazak eta horien erabileraren nondik-norakoak behar bezala zehaztuta eta dokumentu batean jasota egon daitezzen.

Udal ordenantza idatzi aurretik, herritarren iritzi eta ekarpenak jasoko dira, eta 2019-2023 legegintzaldian egindako parte hartze prozesuan jasotakoak ere lanketara ekarriko dira.

TAO/OTA ORDENANTZA BERRIKUSI

Herritarrek egindako proposamenak kontuan hartuz, auzo alkatetzekin batera berrikusiko dugu TAO sistema arautzen duen udal ordenantza.

GARBITASUN ORDENANTZA BERRIKUSI

Garbitasun ordenantza berrikusiko da eta beharrezkoak diren aldaketak egingo dira. Garbitasunari aldagai pedagogikoa txertatuko zaio, garbitasunaren heziketan oinarrituta. "Garbiena ez da gehien garbitzen duena, gutxien zikintzen duena baizik" politika eta praktika ezarri nahi ditugu.

Orain arte izan dugun ordenantza garbitasunerako baino, neurri koertzitibo eta adierazpen askatasuna mugatzeko erabili izan da. Honen aurrean planteamendua aldatu behar da: kontzientzia eta pedagogia izango dira ardatzak, herria ez zikintzeko, adierazpen askatasuna bermatzeko eta inguru garbi eta eroxoak sortzeko.

HERRI LANAK

URBANIZAZIO LAN PUBLIKOAK. PROIEKTU IDAZKETA ETA LANEN EGIKARITZEA

DONEZTEBE PORTUKO ETA SANTA TERESA KALEEN BERRURBANIZAZIOA

Santa Teresa-Donzetebe auzoan hiri-berroneratze integraleko jarduketak egiteko Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari emandako dirulaguntzari lotuta, dagokion urbanizazio proiektuaren idazketa abiatuta, bertan jasotako lanak egikaritutako dira. 2025eko urrirako bukatuko dira laguntza horri lotutakoak.

ALTAMIRA-ALTAMIRAZPI

2021ean Arrasateko Udalak Altamira eta Altamirazpiko bizilagunekin batera egindako parte hartze prozesuaren baitan, 2024 hasierarako berrurbanizazio lanak jasoko dituen proiektua idatzi da. Lan horiek hainbat fasetan egitea aurreikusten du Udalak; 2024an lehenengo faseko lanak lizitatu eta obrak egiten hasiko dira.

TAKOLO-GOIRU URBANIZAZIOA

Proiektu honek 9 fase aurreikusten ditu. Proiektuaren bi fase eta hirugarren baten zati bat 2014 eta 2018 urteen artean egikaritu ziren. Uribe auzoari dagokion fasearen berrazterketa, eta bere kasuan, proiektuaren egokitzapena egin, eta Uribarri etorbideko ipar espaloari dagokiona exekutatu dira.

UDALA AUZOA

Udala auzoko goiko eremua urbanizatzeko proposamena onartuta, proiektua idatzi ahal izateko, aurretiaz informazio bilketa eta lanak egingo dira: topografia jaso, bertako lursailen mugaketa egokia egin, eta lanak egin ahal izateko azterketa geoteknikoa eginda, proiektua idatzi eta lanak bideratuko dira.

GRUPO SAN JUAN

Grupo San Juanen auzotarrekin egindako parte hartze prozesua kontuan hartuta, bertan jasotako premisak gogoan, proiektua idatzi eta lanak egikaritu dira.

GUDARIEN PLAZA

Gudarien plazan bertako bizilagunekin eta interesa adierazi eta bertaratu ziren gainontzeko auzotarrekin egin da parte hartze prozesua. Gaur egun aparkaleku izaera duen plazak eraldaketarako izan ditzaken aukera ezberdinei buruz solastu dira bertako bizilagunak, nolako auzoak/herriak nahi ditugun irudikatuz.

2024 hasieran prozesua amaituta, bertan jasotakoak kontuan izanda idatziko da urbanizazio proiektua, eta ondoren lanak egikaritu dira.

BESTELAKO LAN PUBLIKOAK

BITERI PLAZAKO ATERPEA EGOKITU

Biteri plazako aterpea egokitzeko azterketa bideratuko da dauden aukerak aztertu eta egokitzapenak edo aldaketak egiteko; beti ere, funtzio nagusia -aterpea- erabilera beharretara egokituz, eta plaza gogorra urbanizazio bigun eta berdeago batera bideratu ahal izateko aukerak oinarri izanda (espazioak eta lur azpiko aparkalekuen egiturak ahalbideratzen duen neurrian).

HILETA ZIBILAK EGITEKO LEKUA EGOKITU

Herrian hileta zibilak egiteko espazioa egokitu da, horretarako biltzeko espazioa definitu eta agurretarako prestatuz.

NATUR BIDEAK

Natur bideak konpondu eta mantentzeko plana osatuko da, eta honi lotuta dagozkion lanak egingo dira.

VASCO-NAVARRO

Berriki Eusko Jaurlaritzak ondare historiko izendatu du Bergaratik Lizarrara doan Vasco-Navarro bidea. Arrasateko bide zatiaren egoera ez da egokia. Egoera aztertu, bidea berreskuratu eta egokitu egingo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Vasco-Navarroren egokitzapenerako Europako Funtsetatik Next dirulaguntza jaso duela kontuan izanda, Aldundiarekin lankidetzan bultzatuko du Arrasateko Udalak dagozkion egokitzapenak bideratzeko.



Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Trantsizio ekosoziala	Politika klimatikoak	Naturaguneak	Etxezarreta	Eremua eta bertako eraikinaren segurtasuna bermatzeko lanak egikaritu	x				HTEM
				Jardin botanikoa berreskuratzeko lanak egikaritu	x	x			HTEM
			Naturaguneen sarea	Sarea osatzeko herritarrekin prozesua osatu		x			HTEM-A+OZM
				Sarea osatzeko proiektu/ekintza plana idatzi			x		HTEM-A+OZM
				Sarea osatzeko lanak abiatu				x	HTEM-A+OZM
			Lezetxiki	Lezetxikiko plan zuzendaria idatzi eta planimetria osatu	x				HTEM-Kultura
		Basogintza	Baso sailen erosceta	Udalak baso sailak eskuratuz baso espazio publikoa haunditu	x	x	x	x	HTEM
			Basogintza kudeaketa	Udal basoak kudeatzeko modu berriak arakatu eta plangintza osatu		x			HTEM
		Uraren kudeaketa	Kontagailuak berritu	Kontagailuen irakurketa telematiko eta efizientea bideratu	x	x	x		A+OZM
			Udal ur hornikuntza sistema aztertu	Udal ur hornikuntza sistemaren diagnosis eta ekintza plana idatzi			x	x	A+OZM

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Trantsizio ekosoziala	Trantsizio energetikoa	Energia	Ekintza plana gauzatu	Udalan ezarritako helburuak betetzeko ekintza plana garatu	X	X	X	X	HTEM
	Mugikortasuna	Plangintza	Mugikortasun plana	Mugikortasun plan berria idatzi	X				HTEM
		Garraio publikoa	Autobus geltokia	Autobus geltoki berria non kokatu herritarrekin erabaki	X				HTEM
				Autobus geltoki berrirako planeamendu egokitzapena eta proiektua idatzi		X	X		HTEM
			Autobus geltoki berria egikaritzeko obrak lizitatu					X	HTEM
			Autobus zerbitzua egokitu	Herri-bus zerbitzua aztertu eta egokitu	X	X			A+OZM
		Bidegorriak	Bidegorri sarea osatu	Mugikortasun planaren baitan, bidegorri sarea osatu		X	X	X	HTEM
		Praktika berriak	Hirigintza taktikoa	Autoentzako errei eta eremuak bizikleta eta oinezkoentzako prestatu	X	X			HTEM
	Hirigintza araudia	HAPO	Aurretiatzko lanak/ azterketak	Parte hartze prozesua diseinatu	X				HTEM
				Irisgarritasun unibertsalerako plana idatzi	X				HTEM
				Azpiegitura berdeen azterketa egin	X				HTEM
				Zarata mapa idatzi eta inpaktu akustikoa neurtu	X				HTEM
				Etxebizitza kopuruaren azterketa egin	X				HTEM
				Genero ikuspegiaren azterketa osatu	X				HTEM

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna
*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila	
Trantsizio ekosoziala	Hirigintza araudia	HAPO	Aurretiatzko lanak/ azterketak	Eraikigarritasunaren azterketa egin	X				HTEM	
				Eragin sozioekonomikoaren azterketa egin		X			HTEM	
				Eragin linguistikoaren ebaluazioa egin			X		HTEM	
		Aurrerakina	HAPOaren aurrerakina onartu			X			HTEM	
		HAPO hasierako onarpena	HAPO dokumentua prest, hasierako onarpenerako				X		HTEM	
		Ordenantzak	Terrazen ordenantza onartu	Herriko kaleetan eta plazetan ostalaritzako terrazak jarri ahal izateko araudia osatu		X				HTEM
			TAO/OTA ordenantza berrikusi	Auzo alkatetzekin batera, TAO sistema aztertu eta egokitu			X			A+OZM-HTEM
	Kale garbiketaren ordenantza		Kale garbiketaren ordenantza berrikusi			X			A+OZM	
	Herri lanak	Urbanizazio lan publikoak	Santa Teresa+Doneztebe portuko	Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu		X	X			A+OZM-HTEM
			Altamira+Altamirazpi	Urbanizazio proiektuko 1. fasea egikaritu		X	X			
			Takolo-Goiru urbanizazioa	D fasea (Uribe auzoa) Urbanizazio proiektua berraztertu eta egokitu			X			A+OZM-HTEM
				D fasea (Uribe auzoa) lanak exekutatu					X	A+OZM-HTEM
				E2 fasea (Uribarri etorbidea) lanak exekutatu				X		A+OZM-HTEM
			Udala auzoa	Aurretiatzko azterketak bideratu (topografia, partzelen mugaketa, geoteknikoa)		X				A+OZM-HTEM
				Urbanizazio proiektua idatzi			X			A+OZM-HTEM
				Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu				X		A+OZM-HTEM

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea


Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Trantsizio ekosoziala	Herri lanak	Urbanizazio lan publikoak	Grupo San Juan	Urbanizazio proiektua idatzi	X				A+OZM-HTEM
				Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu		X			A+OZM-HTEM
			Gudarien plaza	Parte hartze prozesua amaitu eta partekatu	X				A+OZM
				Urbanizazio proiektua idatzi	X				A+OZM-HTEM
				Urbanizazio proiektuan jasotako lanak exekutatu			X		A+OZM-HTEM
		Bestelako lan publikoak	Biteri plazako aterpea	Biteri plazako aterpea egokitzeko proiektua idaztea			X		A+OZM-HTEM
				Biteri plazako aterpea egokitzeko lanak exekutatztea				X	A+OZM-HTEM
			Hileta zibilak egiteko gunea	Hileta zibilak egiteko lekua egokitu			X		A+OZM-HTEM
		Bideak	Natur bideak	Natur bideak konpondu eta mantentzeko plana osatu	X	X			HTEM
			Vasco Navarro	Vasco-Navarro herriko ibilbidea duindu		X	X		A+OZM-HTEM

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea



**OINARRI KOMUNITARIOA
DUEN HERRIA**



Arrasate elkarbizitza gune handi bat da, espazio edo bizikidetzaren unitate txikiagoetan banatuta: auzoak, lantokiak, elkartegintza... Komunitatearen izaera indartu eta berreskuratu nahi du Udalak. Elkar bizi eta zaintzeko, eta pertsona guztien eskubideak bermatzeko ekimenak jarriko ditu martxan:

ETXEBIZITZA POLITIKAK

Etxebizitza eskubidea bermatzeko bidean, hainbat ekintza abiatuko dira udal sail desberdinen eskutik.

ETXEBIZITZA PARKEAREN AZTERKETA EGIN

Etxebizitza parkearen azterketa egingo du Udalak: batetik, etxebizitza hutsen erregistroa eguneratu eta datuak azalerraz, eta bestetik, alokairu merkatuaren azterketa eginez. Diagnosi hori etorkizuneko etxebizitza politika definitzeko baliagarria izango da.

GUNE TENTSIONATUA IZENDATZEA

Gune tentsionatu izendatzeko eskaera bideratuko da, dagokion azterketaren baitan memoria osatu eta ekintza plana bideratuta, Eusko Jaurlaritzari eskaera eginez.

GAZTEENTZAKO ALOKAIRU DIRULAGUNTZEN BERRIKUSKETA

Gazteen emantzipazioa berantiarra da gaur egun, hein handi batean etxebizitza duin baterako sarbidea izateko dituzten zailtasunengatik. Horri lotuta, Udalak gazteentzako aurreikusten dituen dirulaguntzak berrikusiko dira, sarbide hori errazte aldera.

LARRIALDI EGOERATARAKO ETXEBIZITZA PARKEA HANDITU

Arrasateko Udalak larrialdi egoeratarako bideratzeko etxebizitza parke murrizta dauka. Beharrak aztertu eta parke hori handitzeko pausuak emango dira.

POLITIKA FISKALAK

FISKALITATE BERRI, PROGRESIBO ETA BERDEAGO BATERANTZ

Bailarako gainontzeko Udalekin batera, politika fiskal komuna diseinatu gura du Udalak. Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eragiteko ekimenak bideratuko ditu, udal tributuen erreforma sakonak eskatuz, fiskalitate berriaren bila.

Udal zerbitzuen tasei dagokienean, uraren tasan erroldatutako herritarren arabera tarifa progresiboa ezarriko da.

FEMINISMOA ETA LGTBI+

Emakume sailak Feminismoak eta LGTBI+ sailerako saltoa eman du, eta berdintasuna lortze bidean jarraituko du Arrasateko Udalak.

EMAKUME TXOKOTIK ETXE FEMINISTARA

Eraikin berriaren proiektua eta herriko kolektibo feministekin espazio berriaren subjektua eraikitzeke dinamika parte hartzailea definitu eta abian jarriko da. Emaizetatik abiatuta, Etxe Feminista errealitate bihurtzeko obrak exekutatu dira.

POLITIKA FEMINISTAK ZEHARLERRO

Udalan politika feministak arlo guztietara iristea da helburua. Horretarako, sail guztiak ordezkari izango duten mahai teknikoak sortuko dira, bertan plangintza adostu, formakuntza orokorra bideratu eta ebaluatu ahal izateko.

Behin behar orokorrak identifikatu, behar espezifikoak identifikatu dira, eta horren garapena landu eta bideratu da.

ENPLEGUA ETA GENERO ARRAKALA

Udal Enplegu politiketatik genero arrakala ezabatzeko politikak landu dira, ikasketak, formakuntza planetan eta estereotipoen apurketan.

BERDINTASUN PLANA

Arrasateko Udal barruko 1go Berdintasun plana idatzi ahal izateko diagnostika egin ondoren ekintza bideratu eta plana idatziko da.

BERDINTASUN KONTSEILU HERRITARA SORTU

Herriko kolektibo desberdinekin eta norbanakoekin bildu eta hausnarketa prozesu partekatu bat bideratu da koordinazio espazioa eraikitzeke.

LGTBI+ ARLOA

Hasteko, herriko diagnostikoa egingo du Udalak. Ondoren, LGTBI+ politikak garatzeko lehenengo plan operatiboa idatziko da, formakuntza oinarri izango duena.

Bestalde, Etxe Feministaren subjektua eraikitzeke parte hartze prozesuan, kolektibo feministekin batera LGTBI+ kolektiboaren parte hartzea bultzatu gura da.



BABES EGITURA SOZIAL ETA KOMUNITARIOAK

Desberdintasun sozialak areagotuz doaz gure gizartean, eta oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituzten herritarren kopurua gora doa. Udalak dituen eskumenen baitan, inor atzean uzten ez duen herria irudikatuz, hainbat proiektu jarriko ditu abian.

PREBENTZIO ETA ESKU-HARTZE KOMUNITARIORAKO MAHAIA

Prebentzio eta esku-hartze komunitarioarako diagnosia egin eta mahaia sortuko du Udalak. Modu horretan, espazio komuna osatu eta arlo desberdinetako herritar zein langileak batu nahi dira bertan: gizarte zerbitzuak, eskola komunitatea, osasun sistemako langileak zein herriko elkarteak.

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNERAKO II. PLANA IDATZI ETA GARATZEA

Planaren oinarrian, giza eskubideekin konprometitutako herriaren eraikuntzan sakontze lana dago, aniztasunean oinarritutako bizikidetza bermatuko duena. Horretarako, gizartearen arlo guztietan aniztasunaren begirada xertatu nahian, landutako ekintza plana garatu eta egikaritzeko da, Udal sail ezberdinen parte hartzearekin.

Herritar ezberdinen arteko harreman komunitarioak sustatuko dituen ekimenak abiatuko dira planaren baitan.

HEZKUNTZA

Hezkuntza modu integralean landu eta ulertu behar dela ulertzen du Udal honek. Herritarren berdintasun bidean, herriko hezkuntza eragileekin, elkarteekin eta familiekin batera osatu nahi du Udalak proiektu hezitzailea.

UDAL ESKOLA KONTSEILUA MARTXAN JARRI

Eskola eskaintzaren banaketa eta segregazioari aurre egiteko ikasleen eskolaratze orekatua bideratzea helburu, ekintza bateratuak bideratu eta landuko ditu Kontseiluak.

ARRASATEK-HEZI PROIEKTUA

Proiektua berreskuratu, eguneratu eta garatuko da, herri hezitzaileen kontzeptua zabalduz.

MONTEIRON ERAIKINA

Monterron eraikina herritar ororen erabilerara bideratu nahi du Udalak. Berdintasuna hezkuntzaren bidetik lortzen den uste sendoan, erabilera orokor horren babesean herritarrekin batera definitu nahi du Udalak eraikinaren erabilera zehazten duen prozesua.

Definitze prozesuari berari eman nahi dio garrantzia Arrasateko Udalak, Monterron eraikinaren erabilera hezitzailea, parkearekin eta herriarekin konektatzeko moduz hitz egin, hausnartu eta etorkizuneko erabilera definitzeko.

Behin horiek definituta, eraikinak dituen eraberritze beharrari helduko zaio, erabilera bateragarritasun hori kontuan izanda.

ZAINTZEN DUEN HERRIA

Zaintza lanak funtsezkoak dira bizitzetan, adin guztietako pertsonak behar dute zainduak izan. Gainera, azken urteetan aldagai berria dago zaintzen esparruan, izan ere, biztanleria zahartzen doa eta gaur-gaurkoz dugun zaintzen sare komunitarioa ez dago prest behar honi erantzuteko. Horrez gain, zaintzen ardurua guztia emakumeen gain geratu da hein handi batean, izan familiako zaintza ez ordaindua, migratu kontratatua edo kontratazio eta lan baldintza prekarioen baitan adostutako lan harremana. Horregatik, Udal eskumenetatik, hainbat proiektu jarriko ditu abian Udalak.

ZAINTZAILEAK ZAINDU

Prebentzio eta esku-hartze komunitariorako diagnosis egin eta mahaia sortuko du Udalak. Modu horretan, espazio komuna osatu eta arlo desberdinetako herritar zein langileak batu nahi dira bertan: gizarte zerbitzuak, eskola komunitatea, osasun sistemako langileak zein herriko elkarteak.

- **Zaintzaileak babesteko programa.**

Ordainpeko zein ordaindu gabeko zaintzaileak babesteko programa garatuko da, ahalduntze, kohesio eta babes kolektiboa lortzeko. Egungo beharrak aztertuko dira, baliabideen hutsuneak identifikatuz, eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharra eguneratu eta kontuan hartuz.

- **Etxeko langileentzat arreta soziosanitarioko doako formakuntza eskainiko du Udalak.**

- **Sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina.**

Zaintza lanean erantzukidetasuna sustatzeko zaintza sektoreko zenbait eremutan lan egiten dutenen (emakumeak, batez ere) testigantzak jaso, lanaren kalitate eta baldintzei buruzko datuak bildu, eta sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina abiatuko da.

- **Zaintza eremuko langile eta kontratatzaileentzako aholkularitza.**

Langile eta kontratatzaileentzako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzu publikoa martxan jarriko da, dituzten zalantza eta arazoak soluziobidean jarri.

- **Zaintza lanak egiten dituzten enpresen klausulak aztertu eta egokitu.**

Udalak ematen dituen zerbitzuen barruan, zaintzari lotuta azpikontratatuta dituen enpresen kontratuak arautzen dituzten baldintza klausulak berraztertuko dira, zaintzaile eta zainduen eskubideak bermatze bidean egokitzapenak eginaz.

ZAINZA SARE KOMUNITARIOA

- **Espazio komunak landu.**

Zaintza sare komunitarioak osatzeko adin, kolektibo eta eragile desberdinen arteko espazio komunak landuko dira, informazioa, elkar ezagutza, sentsibilizazioa eta erronken kolektibizazioa bultzatuz.

- **La Merced proiektua.**

La Merced eraikina etxekidetza proiektu pilotu gisa landu eta garatu beharko litzakeela uste du Arrasateko Udalak. Etxekidetza hori era zabalean ulertuta, egin nahi den interbentzioak hainbat herritarri eta kolektibori erantzun eta laguntzea du helburu.

Udalak, baina, eskumen eta baliabide mugatuak ditu tamainazko erronka honi aurre egiteko. Hori kontuan izanda, eta herritarren beharrei erantzuteko maila ezberdinetako gobernu eta administrazioen arteko lankidetzak beharrezko dela ulertuta, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lanketa bideratuko du Udalak.

Etxekidetza zerbitzu publiko horren helburua da, betiere administrazio bakoitzak dituen eskumenak baliatuz, nagusiei (zahartze modu eta egoera ezberdinak kontuan izanda), gazteei eta desgaitasun ezberdinak dituzten herritarrei etxebizitza edo bizileku beharrei erantzuna ematea.

BELAUNALDIARTEKOTASUN POLITIKAK

Lan ildo berri honetan sail ezberdinen arteko elkarlana abiatu eta abiapuntu izango den belaunaldiartekotasun politikak martxan jartzea:

OSASUNA

Gazteen artean osasun mentalari lotutako egoerak ugartzen ari dira gure herrian. Egoeraren larritasunaz jabetuta, diagnostia eta prebentzio plangintza landuko ditu Udalak.

AISIALDI EREDUA

Udal azpiegituren beharrak aztertu eta identifikatuta, batetik, Musakolako gaztegunea egokitzeko lanak egingo ditu Udalak, eta bestetik, gaztetxeko mantenu beharrak bideratuko ditu.

IKASKETA GUNEA

Ikasleen beharrei lotuta, aldiz, Kulturaren ikasketa gela kolektiboa sortu eta egokituko du, Liburutegiko ordutegiaz haratago ireki gura dena.

NAGUSIEN KONTSEILUA SORTU

Herriko nagusiak batuko dituen Kontseilua sortuko da dituzten beharrian ezberdinei erantzuna eman ahal izateko. Horretarako, herriko elkarte ezberdinekin eta batzen diren norbanakoekin egingo da lanketa, eta Kontseilua abian jarriko da.

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Berdintasuna	Etxebizitza politikak		Etxebizitza parkearen azterketa	Etxebizitza hutsen erregistroa eta alokairu merkatuaren azterketa egin	X	X			HTEM
			Gazteentzako alokairu dirulaguntzen errebisioa	Hutsuneak identifikatu eta lerro berriak aztertu	X	X			Belaunaldiarteko
			Larrialdi egoeratako etxebizitza parkea	Beharren azterketa eta parkea handitzeko bidea egin		X	X		Ongizate
			Eremu tentsionatu izendapena	Ejri eremu tentsionatu izendapena eskatu	X				HTEM
	Politika fiskalak		Fiskalitate berri, progresibo eta berdeago bateruntz	Fiskalitate berri, progresibo eta berdeago bateruntz politikak implementatu	X	X	X	X	Ogasuna
	Feminismoak		Emakume Txokotik Etxe Feministara	Dinamika partehartzailea: diseinua eta inplementazioa	X	X			FEM+LGTBI+
				Eraikin berrirako lanak: proiektua eta exekuzioa		X	X		FEM+LGTBI+
			Politika feministak zeharlerro	Mahai teknikoa sortu	X				FEM+LGTBI+-PERTS
				Udal plangintza orokorra diseinatu eta abiatu		X			FEM+LGTBI+-PERTS
				Sailetarako plangintza espezifikoa diseinatu eta abiatu			X	X	FEM+LGTBI+-PERTS
			Enplegua eta genero arrakala	Enplegu politketan genero arrakala ezabatzeko politikak landu	X	X			FEM+LGTBI+-ENPL
			1go Udal Berdintasun plana	Diagnosia egin eta ekintza plana prestatu	X				FEM+LGTBI+
				Berdintasun plana idatzi		X	X		FEM+LGTBI+
			Berdintasun kontseilu herritarra	Arrasateko kontseilua sortu eta martxan jarri	X				FEM+LGTBI+
			LGTB+ arloa	Herriko diagnosia egin	X				FEM+LGTBI+
Ekintza eta formakuntza plana prestatu		X		X		FEM+LGTBI+			

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila	
Berdintasuna	Babes egitura sozial eta komunitarioak		Prebentzio eta esku-hartze komuntariorako mahaia	Azterketa egin eta prebentzio eta esku-hartze komuntariorako mahaia mahaia sortu	X	X			Ongizate	
			Bizikidetzeta eta Aniztasunerako II plana	Ekintza plana idatzi eta plana garatu	X	X	X		Ongizate	
	Hezkuntza		Udal eskola kontseilua	Udal Eskola Kontseilua martxan jarri	X				Hezkuntza	
			Arrasatek-Hezi proiektua	Proiektua berreskuratu, eguneratu eta garatu	X	X			Hezkuntza	
			Monterron eraikina	Herritarrekin erabilera zehatza definitu	X	X			Hezkuntza	
				Proiektua idatzi		X	X		HTEM	
	Zaintzen duen herria	Zaintzaileak zaindu	Zaintzaileak babesteko programa	Ordainpeko zein ordaindu gabeko zaintzaileak babesteko programa garatu	X	X	X		Ongizate	
			Etxeko langileentzat arreta soziosanitarioko doako formakuntza.	Etxeko langileentzat arreta soziosanitarioko doako formakuntza eskaini	X	X			Ongizate	
			Sentsibilizazio eta prestakuntza kanpaina	Zaintza lanean erantzukidetasuna sustatzeko testigantzak eta informazioa batu eta kanpaina martxan jarri		X			Ongizate	
		Zaintza sare komunitarioa		Langile eta kontratatzaileentzako zerbitzu publikoa	Langile eta kontratatzaileentzako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzu publikoa					Ongizate+enplegu
				Zaintza lanak egiten dituzten enpresen klausulak aztertu eta egokitu	Udalak azpikontrataturako enpresen kontratuen klausulak aztertu eta egokitu		X			Ongizate+kontratazio
				Espazio komunak	Zaintza sare komunitarioa osateko espazio komunak landu	X	X			Ongizate
				La Merced proiektu publikoa	Proiektuaren definizioa, lanketa, erakunde publikoen arteko lankidetzeta	X	X	X	X	HTEM+Be-lau+ongizate

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Berdintasuna	Belaunaldiarte-kotasuna	Osasuna	Osasun mentala	Osasun mentalari lotuta, diagnosia eta prebentzio plangintza egin	X	X	X	X	Belaunaldiarte- teko
		Azpiegiturak	Gazteguneak egokitu (Musakola)	Musakolako gaztegunea egokitzeko lanak egin	X				Belaunaldiarte- ko+HTEM
			Ikasketa gela kolektiboa	Kulturaren ikasketa gela kolektiboa sortu eta egokitu	X				Belaunaldiarte- teko
		Elkarguneak	Nagusien kontseilua	Herriko nagusiak batuko dituen Kontseilua sortu	X				Belaunaldiarte- teko

*HTE=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna



HERRI AKTIBO ETA EKINTZAILEA

Ibilbide ekintzaile eta aktiboa izan du Arrasatek, eragile sozial, ekonomiko zein kultur eragileei esker. Herrian dagoen potentzial herrigilea aprobetxatu, eta sinergiak sortzeko helburuarekin hainbat ekimen jarriko ditu martxan Udalak:

KIROL HERRIA

Kirol Herria proiektuak kirola ulertzeko beste era bat du ardatz. Osasuna, mugikortasuna eta kirol-guneen arteko loturak, aisialdia, hezkuntza, lurraldea, kirola ulerkera tradizionalen uztartu nahi dituen proiektua garatuko du Udalak. Horretarako ekintza eta proiektu ezberdinak jarriko ditu martxan, kirol politika aktiboak sustatu eta udal sail ezberdinek garatuko dituztenak.

Azpiegiturak ere hobetuko dira, tartean honako egitasmo hauek abiatuz:

KIROL AZPIEGITURA HANDIAK

ITURRIPE

Gaur-gaurkoz Iturripeko lursaila ez da udal jabetzakoa, kiroldegi berria eraiki ahal izateko hirigintza planeamenduan aldatzeke dago. Horrez gain, proiektua idatzi beharra dago.

Horregatik, lursaila kudeatu, hirigintza planeamendua egokitu, eta gunea berritzeko proiektua idatziko da. Bertatik abiatuko du Udalak azpiegiturak berritzeko bidea.

MUSAKOLA-ANTOÑA-MOJATEGI GUNEA

Kirol instalazio handi honen azterketa eta proiektua idatziko du legegintzaldi honetan Udalak; horretarako Iturripe guneko lanak bideratu behar dira. Proiektu horretan, Musakolako Kiroldegiaren eraikin berria egiteko beharra jasoko da, gaur egun dagoena eraitsi beharra dagoelako. Baina inguruan dauden bestelako kirol azpiegituren inguruko azterketa egingo da, hauen hobekuntza eta mantenua eginez, eta proiektu berrian txertatuko dira.

Mantenu hauek legegintzaldi osoan egingo dira, bai Musakolako Kiroldegian, hau erabilgarri egoteko, baina baita inguruko kirol azpiegiturretan, Mojategin eta Antoñako frontoian, adibidez.

ATXABALPE

Gaur egun eremu hau alokatuta badago ere, etorkizunean herritarren eta herriko taldeen erabilerarako berreskuratu gura du espazioa Udalak. Beharren azterketa eta lanketa bideratuko du etorkizuneko erabilera irudikatzeke.

NATURA GUNEAK

Batetik, herriko natura gunek eta parkeak lotzeko dinamikak abiatuko dira, erabilera anitzak gogoan. Bestetik, mendi ibilbideak sustatuko dira, hala nola Arrasateko itzulia edota Musakola-Barrenazar-Epele-Zaraazar-Meatzerreka-Monterron ibilbidea.

ARRASATE HERRI KULTURGILEA

KIROL AZPIEGITURA HANDIAK

KULTUR AZPIEGITUREN MAPA

Kultur azpiegitura desberdinen mapa egingo da, erabilerak zehaztuz eta sarean lan egiteko moduak landuz (Amaia Antzokia, Kulturate, Kulturola, Juan Artzamendi, Musika lokalak,...)

AMAIA ANTZOKIA

Amaia antzokiak konponketa lan sakonak behar ditu; batetik, mantenu beharrak eragindakoak, eta bestetik, azpiegiturak duen berritze eta egokitze beharrak sortutakoak. Egoeraren azterketa egin eta lanak zehaztuko ditu Udalak. Horrela, azterketa hori egin, lanak definitu, proiektua idatzi eta lan horiek egikarrituko ditu antzokia egokituz.

AGENDA BATERATUA

Herriko eragile, kultur talde, merkataritza elkarte, eta kultura sailak antolatzen dituen ekintzak jasoko dituen agenda bateratua osatu gura du Udalak, herritarrek informazioa modu bateratuan jaso dezaten. Agenda bateratua lortzeko talde eta eragile ezberdinekin egingo du lanketa.

ONDAREA

LANAK

Herri ondarea berreskuratze bidean zenbait lan egikarrituko ditu Udalak, besteak beste, honakoak: Portaloiko arku eraberritzeko eta Zerrajerakoa amaitzeko lanak, Markuleteko labea eskuratu, ondare izendatu eta herritarrei erakusgarri jarri, edota Gomeztio baserriko egitura berreskuratu eta erakusgarri jarri.

EUSKARA

Euskararen arloan, herriko eragileekin batera bideratuko den elkarlana oinarri hartuta, batetik, Herri mailako Plan Integrala osatuko da, eta, bestetik, udal ordenantza egingo da.

Esparru sozioekonomikoan, batez ere, lan munduan eragitea da Udalaren asmoa. Horretarako, "Harixa" egitasmoa bultzatuko du Udalak, bailarako herriein batera eta Debagoieneko mankomunitatearen laguntzarekin.

Udal politiketan zeharlerro izango da euskara, Udal barruko harreman hizkuntza eta lan hizkuntza izango da euskara, prozedura eta izapideen berrazterketan berariaz hartuko delarik kontuan hizkuntza politika. Arrasateko euskalkia, hika eta noka lantzeko ekimen eta ikastaroak ere jarriko dira martxan. Dagoeneko martxan da, adibidez, Appa hil aplikazioa, ikasteko modu berrietara egokitutako metodologia oinarri duena.

TOKI EKONOMIA ETA ZIRKULARRA

LANDA GARAPENA ETA ELIKADURA BURUJABETZA

AZOKA BERRITU

Azoka berritzeko proiektua idatzita, eta Gureztatu prozesuan egindako lanketa abiapuntu izanda, azken hau eguneratzeko lanak egingo ditugu eragile eta elkarteekin. Izan ere, Gureztatu prozesuak jasotako ondorioek azokarako bide orri berria marrazten bazuten ere, dagoeneko 9 urte pasa dira ondorio horiek idatzi zirenetik. Kontsumo ohitura berriak edo eta herrian azokari lotuta sortu diren eragile berriak txertatuko dira bide orri berrian, betiere, elikadura zaintza eta burujabetza gogoan.

EHUN EKONOMIKOA

- **Arrasateko ehun ekonomikoaren Erresilientzia plana egitea:** Ehun ekonomiko eta enpresarialaren egoera aztertu eta garai berrietara egokitzeko oinarriak eta egitasmoak diseinatuko ditu Arrasateko Udalak: kontsumo eredu berriak, trantsizio energetiko eta ekologikoa, digitalizazioa edo eta belaunaldien arteko erreleboa.
- **Coworking-erako espazioa sortu:**

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen sailarekin batera azterketa bideratu eta herrian coworking-erako espazioa sortuko du Arrasateko Udalak.

HERRIKO ENPRESAK ETA UDALAREN ARTEKO TOPAGUNEA

Enpresekin hartu emaneko kanalak ireki eta kanal horiek iraunkorrak izan daitezen antolatuko gara, beraien egoera eta premiak zuzenean ezagutzeko eta Udalaren egitasmoak ezagutarazteko.

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Kultura	Kirol Herria	Kirol azpiegiturak	Iturripe kiroldegia	Gunearen proiektua idatzi eta planeamendua egokitu	X				HTEM+kirola
				Obrak lizitatu		X			HTEM+kirola
				Obrak egikaritu			X	X	HTEM+kirola
			Musakola-Atoña-Mojategi kirol gunea	Atletismo pista berri	X				A+OZM-kirola
				Guneraren mantetze beharrak aztertu eta exekuzioa bideratu	X	X	X	X	A+OZM-kirola
				Eraikin berriaren proiektua lizitatu			X		HTEM+kirola
		Atxabalpe birpentsatu	Lagatako eremua herri erabilerarako berreskuratuta, beharren arabera eremua birpentsatu		X	X		Kirola	
		Natur guneak	Mendi ibilbideen sustapena	Arrasateko itzulia, mugarriz mugarri		X			Kirola
				Musakola-Barrenazar-Epele-Zaraazar-Meatzerreka-Monterron			X		Kirola
		Arrasate herri kultur gilea	Kultur azpiegiturak	Kultur azpiegituren mapa	Mapa egin, erabilerak zehaztu eta sarea osatu	X	X		
	Amaia antzokia			Egoeraren azterketa egin eta proiektua idatzi	X				A+OZM
				Obrak lizitu eta egikaritu		X	X		A+OZM
	Agenda		Kultur agenda	Kultur agenda bateratua sortzeko lanketa egin	X	X			Kultura

*HTEM=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea

Ildoa / erronka	Arloa	Azpiarloa	Proiektua	Deskribapena / egitekoa	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Saila
Kultura	Ondarea	Lanak	Portaloia eraberritzeko obrak	Arkua eraberritzeko lanak egikaritu		X			A+OZM
			Zerrajerako arkua eraberritu	Arkua eraberritzeko lanak egikaritu	X				A+OZM
			Markuleteko labea	Labea ondare izendatu eta egonkortze lanak egin	X	X			HTEM
			Gomezio baserria	Egitura berreskuratu eta balorean jarri	X	X	X		HTEM
	Euskara		Euskararen plan integrala	Euskararen plan integrala osatu		X			Euskara
			Euskararen ordenantza	Euskararen udal ordenantza osatu eta onartu		X			Euskara
			Harixa egitasmoa	Esparru sozioekonomikoan ergiteko egitasmoa bultzatu	X				Euskara
			Euskara zeharlerro udalean; lana euskaraz	Udalak euskaraz lan egiteko baliabideak jarri	X	X			Euskara
			Arrasateko euskalkia, hika eta noka	Arrasateko euskalkia, hika eta noka lantzeko ekimen eta ikastaroak	X	X			Euskara
	Toki ekonomia eta zirkularra	Landa garapena eta elikadura burujabetza	Azoka berri	Gureztatu proiektua oinarri, eguneraketa eta garapena	X				Tok. Ekon+Enplegua
				Azoka berritzeko obrak egikaritu		X	X		A+OZM-Tok. Ekon
		Ehun ekonomikoa	Arrasateko ehun ekonomikoaren plana	Arrasateko ehun ekonomikoaren erresilientzia azterketa egin	X	X			Tok. Ekon+Enplegua
			Coworking-erako espazioa sortu	Azterlana egin eta espazioa sortu			X	X	Tok. Ekon+Enplegua
			Herriko enpresak eta Udalaren topagunea	Topagunea sortu		X			Tok. Ekon+Enplegua

*HTME=Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasuna

*A+OZM=Auzoak eta Obra, Zerbitzu eta Mantentzea

